Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Felipe Aiastui Galdos

Oñati, Gipuzkoa (1925-2020)



Aurkibidea

Biografia



Larraña auzoko Olabarri baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik bosgarrena. Aita bertakoa zen, eta ama Uribarri auzoko Aingeru baserritik etorritakoa. Sarramendiko eskola berrian, Larraña, Garibai eta Zubillagako beste 60 bat ikaslerekin batera ikasi zuen, zazpi urtetik hamahirura. Etxean, baserriko lanetan eta idiekin egur garraioan jardun zuen. Igartua lantegian ekin zion lanean 35 urterekin, kateak eta kale-argientzako kakodun metalezko zutabeak egiten. Handik gutxira Murgia auzoko Estenaga baserrira ezkondu zen, bertako Karmen Arriaranekin. Seme-alaba bi izan zituzten. Felipe Estenagan esne-behi batzuk jartzen hasi zen, eta elkarrizketa egin zitzaionean baserria esne-behi ustiategi (herrian bakarra dena) bihurtuta zegoen, Feliperen semeak kudeatuta.

Zintak

ONA-140

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-08-20
- **Iraupena**: 80 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Sarramendiko eskola I

- **Erref**: ONA-140/002
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:01:26. **Bukatu**: 00:03:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Olabarri baserrikoa da. Sarramendiko eskolan ibili zen, Santiago Arriolea maisu bergararrarekin. Gregorio Larrañaga izan zen hurrengo maisua. Felix maisua, Peru bezala ere ezaguna. Eskola zaharra ez zuen ezagutu; Mateo Arrese zen han maisua.

2. Sarramendiko eskola II

- **Erref**: ONA-140/003
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:03:39. **Bukatu**: 00:06:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Zazpi-zortzi urterekin hasi zen eskolan. Etxean lana zegoen, eta 13 bat urterekin utzi zuen. 60 bat lagun elkartzen ziren. Zein baserritatik joaten ziren hara: Askazuri, Arrandegi, lau Koixkar... Arrola. Kaleko mutiko bat etxean izan zuten, eskolara bertan joateko.

3. Sarramendiko eskola III: babarrun katiluak

- **Erref**: ONA-140/004
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:06:39. **Bukatu**: 00:09:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Eskolara egunero joaten ziren, bakoitzak katilukada babarrunekin; hantxe egosten zuen maisuak, eta bertan bazkaltzen zuten. Erdaraz jakin ez, eta kantuan ikasten zuten. Dotrina, katona. Maisua ez zen bertan bizi; baserrietan egiten zuen lo, txandaka. Eskolarekin zer gertatu zen.

4. Igartuanean lanean, kateak eta kakoak egiten

- **Erref**: ONA-140/006
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:09:17. **Bukatu**: 00:13:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Eskola bukatzean etxean ibili zen denbora batean, eta gero Igartua lantegian hasi zen, kakodun posteak eta kateak egiten. Toki askotara bidaltzen zituzten. 25 urte egin zituen han. Eskuz egiten zen lan asko. 60 urte zituenean porrot egin zuen lantegiak. Burdinazko posteak. Bilbon jarri zituzten pila bat, Gran Vian.

5. Kalean apopilo, Igartuanean hasi zenean

- **Erref**: ONA-140/008
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:13:24. **Bukatu**: 00:15:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:
Igartuan lanean zebilela apopilo egon zen Antonio Arrueren arrebaren etxean. Patrue kaleko ferratokitik behera bizi zen, okindegiaren gainean. Hark nola deitzen zion kale hari. Kantonoste. 36 urterekin joan zen kalera bizitzera. Gero, ezkondu egin zen.

6. Baserrian lana ugari, presarik ez

- **Erref**: ONA-140/010
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:15:28. **Bukatu**: 00:17:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
29 hektarea terreno ditu Olabarrik. Behiak basoan ibiltzen ziren eta ardiak ere bazituzten. Gazta egiten zuen amak. Zazpi duro izaten zen kontribuzioa; duro bakarra sobratu arren, lasai. Lehen ez ziren presaka bizi. Ordularia bazuten etxean.

7. Gariaren lanak eta errotak

- **Erref**: ONA-140/011
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:17:40. **Bukatu**: 00:20:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Idirik ez zuten hasieran. Garia Errekalden lehenago heltzen zen, eta hara joaten ziren; txandaka. Ezagutu du txanketea; lan luzea zen. Matxaka. Garia eralgi egiten zuten. Murgiako errotara eramaten zuten garia ehotzera. Antzuolara ere joanda dago errotara. Zuazolako errota.

8. Gerra ostean, errotara gauez

- **Erref**: ONA-140/013
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:20:50. **Bukatu**: 00:23:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Gerra ostean errotak itxia egon ziren, eta gauez ere joaten ziren Zuazolara; arreba hantxe zegoen neskame. Guardia Zibilak ez zituen harrapatu. Dolaetxera joan, eta Zañartuko bidetik. Garia eta babarruna entregatu beharra. Aita Olabarrikoa zen, ama Aingerukoa.

9. Basoan iratan eta gaztainatan; jatorduak

- **Erref**: ONA-140/015
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:23:59. **Bukatu**: 00:26:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Baso lanak. Udazkenean, iratan eta gaztainatan. Gaztainak eta esnea. Berakatz salda eta leka patatak. Orduko jatorduak: babarrunak. Denak batetik jaten zuten, etxeko bederatzi lagunek. Gosaria, 08:30ean. Ilundu arte lanean.

10. Baso lanak. Haritzak botatzen I

- **Erref**: ONA-140/016
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 00:26:44. **Bukatu**: 00:30:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Basoan ilundu arte lanean ibiltzen zirenekoa. Beste bi lagunekin (Sarramendiko bi anai) trenbideak egiteko haritzak ebakitzera, trontzarekin. 15 pezeta ordaindu zieten eguneko. Basoa non zegoen. Aireplanoa erori zen tokia. Olabarrietako zerratokia. Karreteroak. Kargaderoa eta kamioiak.

11. Baso lanak. Haritzak botatzen II

- **Erref**: ONA-140/018
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:31:03. **Bukatu**: 00:34:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Haritzak botatzen hiru lagun ibili ziren. Sasiak kendu. Trontzarekin haritz bat botatzeko ordu pare bat bai! Lehengo trontzak nolakoak ziren. Motozerra. "Kaskia". Karreteroak idiekin joaten ziren bertaraino.

12. Karretero lanetan ere ibilia

- **Erref**: ONA-140/019
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:34:12. **Bukatu**: 00:36:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Karretero lanetan ere ibilia da. Zeintzuk ibili ziren aipatzen du. Apeak. Uriko Inazio oso indartsua zen.

13. Ardi lanak eta janztetxea

- **Erref**: ONA-140/021
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:36:11. **Bukatu**: 00:39:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Aita eta anaia artzainak ziren; berak ez du ikasi ardiak jezten. Neguan Torretxebarri Txikira bidaltzen zituzten ardiak. Bildotsak. Janztetxera eramaten zuten esnea, gatzatua egiteko. Janztetxea non zuten. Abarkak aldatzen zituzten han. Katiuskak.

14. Gerrako kontuak; Madalenako zubia bota zutenekoa

- **Erref**: ONA-140/022
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:39:34. **Bukatu**: 00:42:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Gerrako oroitzapenak. Hasi zenean, Olabarrin zegoen belarra ebakitzen; zarata entzun zuten. Madalenako zubia bota zuten. Egurrezkoa egin zuten. Milizianoak Torrera joan ziren Lizargaratetik behera. Anaia soldadu zegoen Donostian, sukaldari. Eltzikortako anaietako bat gerran hil zen, Teruelen uste du: Juane Erostegi.

15. Auzolana; plazara saltzera

- **Erref**: ONA-140/024
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:42:32. **Bukatu**: 00:45:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Gari lanez aparte, ez zen beste auzolanik; bidegintzarako bai, etxe bakoitzetik bat joaten zen. Ira etxe ondoan zuten; Torrekoak gaizki ibiltzen ziren, urruti zutelako. Gaztaina saldu ere egiten zuten; ama joaten zen plazara, eta arreba zaharrena, Ramona. Patata, arrautzak... Arreba Bergarara ere joan izan zen, San Antoniora, han gehiago ordaintzen zutelako, astoarekin.

16. Abadiñora feriara, astoa erostera

- **Erref**: ONA-140/025
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 00:45:04. **Bukatu**: 00:48:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Koixkartik Abadiñora joan zirenekoa, feriara astoa erostera. Bueltan, Apatamonasterion gizon bat hilda, eta Guardia Zibila. Kanpanzar. Oñatiko eta Arrasateko feriak. Fruta arbolak bazituzten Olabarrin, baina denak hondatu ziren. Orain ez da inor bizi Olabarrin.

17. Lizargarateko kontuak: erromeria, taberna, lurrak

- **Erref**: ONA-140/027
- **Iraupena**: 0:04:06. **Hasi**: 00:48:55. **Bukatu**: 00:53:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Lizargarateko erromeria; Sarramendik ahoko soinua jotzen zuen han, filarmonika. Lizargarateko taberna. Eltzikortakoak han bizi ziren lehen, eta, lur kontuak zirela tarteko, bota egin zituzten: eztabaida piztu, eta juramenturik egin nahi ez. Juramendua nola izaten zen, epaitegian apaizarekin. Elorriokoa zen gero Lizargaraten bizi zena; haren semeak egin zuen taberna. Berak eraman zion gaztaina egurra.

18. Lizargarateko erromeria eta Asaldittakoa

- **Erref**: ONA-140/029
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:53:10. **Bukatu**: 00:56:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Lizargarateko erromeriak, igande iluntzean. Dantza. Behiak hartuta, bueltan. Bolatokia zegoen; txakur txikia bota. Asaldittako jaian jende asko biltzen zen (Antzuola, Zumarraga...); erromeria. Ardoa eta sagardoa eramaten zituzten gurdiz. Musika: Antzuolako "Gorri" soinu-jotzailea. Bartolo erroskilak saltzera joaten zen, eta denak saldu. Joakin mandazaina.

19. Larrañako baserriak nola hustu ziren

- **Erref**: ONA-140/034
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:59:17. **Bukatu**: 01:02:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
1961ean ezkondu zen. Ordurako Larrañako baserriak hustuta zeuden. Torretxebarri erre egin zen. Errekalden zerrategia jarri zuen Antoniok. Baserriak ez zuen bizitzeko ematen. Pedro Koroso izan zen azkena alde egiten. Lehengo bideak, txarrak.

20. Behi pintoek askoz esne gehiago

- **Erref**: ONA-140/036
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 01:02:52. **Bukatu**: 01:05:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Behiak bazeuden, Estenagara ezkondu zenean: lau. Baina esne gutxikoak. Suitzarren ordez pintoak jarri, eta askoz esne gehiago. Orain 200 bat buru dituzte, batzuk Agerren. Umeak txikiak zirenean 16 behi zituen.

21. Bizimodu aldaketa; garia ebakitzeko makina

- **Erref**: ONA-140/037
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 01:05:03. **Bukatu**: 01:06:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Garirik ez zegoen ordurako Estenagan. Bizimodu aldaketa. Garia ebakitzeko makinarekin Olabarrin eta inguruko beste baserri askotan ibili zen. Gasteizen erosi zuen makina: Ajuria y Aranzabal.

22. Garia ebakitzeko makina eta gari lanak

- **Erref**: ONA-140/039
- **Iraupena**: 0:05:04. **Hasi**: 01:07:07. **Bukatu**: 01:12:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Gari makinarekin egun bakarrean ebakitzen zuten gari dena; lehen, zortzi egun behar. Garia txanketean jotzea. Soldaduskan Logronon zegoela han gari lanak nola egiten zituzten. "Malakatia" makina, matxaka mugiarazteko.

23. Zinemara, ezkondu berritan

- **Erref**: ONA-140/041
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 01:12:39. **Bukatu**: 01:15:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Kultura » Zinema
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Ezkondu berritan zinemara joaten ziren Aloñara; dantzara ez. Lana egiten zuen larunbatetan ere; "sabado ingles" zer zen, arratsaldea jai. Orduan zubirik ez zegoen. Auzoko giroa. Ganadu jatekoa eramateko ere errazago Murgian Olabarrin baino.

24. Eliza, "hamarrenak eta primiziak"

- **Erref**: ONA-140/043
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 01:15:17. **Bukatu**: 01:19:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Olabarritik mezetara Koixkarrera joaten ziren, eta aurretik kalera ere bai, gurasoekin. Abarkak garbitu. Lizargarate. Gerra aurretik "eminiaun" bana gari entregatzen ziren parrokian, "hamarrenak eta primiziak" ordaintzeko. Denak batu eta bera joaten zen eramatera. "Mayorala". Don Felix Arrazola apaiza.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com